Getxo
bizi ezazu

www.getxo.net
Marzo 2015

Noticias desde

# Romo
## Kultur Etxea



Foto publicada bajo licencia Creative Commons en: www.flickr.com/photos/chrisgallevo

## EQUIPAMIENTOS QUE BRINDAN NUEVAS POSIBILIDADES DE DESARROLLO SOCIAL Y CULTURAL



### SALA MULTIUSOS: planta-1

En el sótano del edificio se ubicará un salón de actos polivalente con 200 butacas que dotará a la zona de una infraestructura de la que no dispone en la actualidad. Las actividades que se podrán llevar a cabo en esta sala son diversas, desde conciertos, teatro de pequeño formato, baile, hasta proyecciones cinematográficas, conferencias…; es decir, su polivalencia va a permitir llevar a cabo una programación muy variada y abierta a las actividades de las asociaciones y entidades culturales del municipio.
El resto de las instalaciones bajo rasante darán servicio no sólo al salón de actos (vestuario y almacén), sino que acogerán otras infraestructuras del edificio (informática, almacén, cuartos técnicos…)




### HALL DE ACCESO PRINCIPAL: planta baja

En el interior del edificio prima la funcionalidad, la racionalidad de los espacios, la optimización en las circulaciones… que ayudan a organizar un programa ordenado.
El acceso principal se plantea por la plaza Santa Eugenia. Desde el punto de entrada, en el centro del edificio, se accede a un vestíbulo o hall que distribuye las circulaciones principales: hacia la derecha a la sala de exposiciones y cafetería restaurante; hacia la izquierda a la zona de recepción e información, y Gazteleku.

### BIBLIOTECA: planta 1

El futuro equipamiento contará con la mayor biblioteca del municipio, más de 710 metros cuadrados. Una biblioteca moderna y adaptada a los tiempos actuales que contará con ordenadores de consulta. Un servicio que se enriquecerá con una hemeroteca y con salas de estudio individual y en grupo adjuntas. También con una biblioteca juvenil y una bebeteca en la planta superior.
Por sus instalaciones, distribuidas en dos plantas, se estima que pasen alrededor de 140.000 personas anualmente.





### BEBETECA: planta 2

Junto a la biblioteca infantil y juvenil, salas polivalentes para las asociaciones y entidades (reuniones, cursos, talleres, charlas, proyecciones…), salas para la administración, y una zona común de estancia, la segunda planta del equipamiento se completará con una bebeteca. Se trata de un espacio adaptado y diferenciado de motivación e iniciación de los más pequeños en la literatura, en el que bebés y padres podrán desarrollar y estimular sus futuros hábitos lectores.



### NAGUSIEN ETXEA: planta 3

La Nagusien Etxea se trasladará a las nuevas instalaciones lo que permitirá superar las deficiencias del edificio actual. Igual que ocurre con otros servicios se percibe como una oportunidad la amplia oferta de usos e instalaciones que acogerá el equipamiento para fomentar el dinamismo, la participación e incluso la colaboración entre los usuarios y usuarias.
La futura Nagusien Etxea contará, entre sus servicios, con peluquería, podología, masaje, gimnasio, comedor, billar, salas de televisión, de lectura y de reuniones… Además de los espacios de uso en exclusiva, sus socios y socias tendrán acceso al resto de espacios y servicios que prestará la Kultur Etxea.



### EUSKALTEGI y ZONA COMÚN DE ESPARCIMIENTO/DESCANSO: planta 4

La planta cuarta acogerá diversas aulas principalmente destinadas al Euskaltegi y también para las asociaciones, y completará sus instalaciones con zona común de esparcimiento y descanso con la que también contarán otras plantas.

### MÚSICA/DANZA: planta 5

La quinta planta está destinada a locales para grupos corales, danzas, etc. Son espacios polivalentes especialmente diseñados para esos colectivos que incluyen salas de audición, grabación y ensayo, que en el caso de los huecos para ensayos de grupos de música rock, pop, etc, estarán perfectamente insonorizados. Como el resto de los locales el uso será compartido entre todos aquellos grupos y asociaciones que los soliciten. Este nivel se completa con el espacio destinado a almacén.



*Infografías de algunos de los espacios o equipamientos que acogerá la RKE, realizadas según las características definidas en el proyecto técnico.

Getxo
bizi ezazu
www.getxo.net
2015ko Martxoa

Berriak

# Romo
# Kultur Etxea



Creative Commons-en lizentziapean argitaratutako argazkia: www.flickr.com/photos/chrisgallevo

## GIZARTE ETA KULTURA GARAPENERAKO AUKERA BERRIENTZAKO EKIPAMENDUAK



### ERABILERA ANITZEKO EKITALDI-ARETOA: -1. solairua

Eraikineko sotoan balio anitzeko ekitaldi-areto bat kokatuko da, 200 lagunentzako lekua izango du eta inguruari egun ez duen azpiegitura bat emango dio. Areto horretan era guztietako ekitaldiak egin ahalko dira: kontzertuak, formatu txikiko antzerkia, dantza, zinemako proiekzioak, hitzaldiak…; hau da, balio anitza izateak askotariko programazioa egiteko aukera emango du eta udalerriko kultur elkarte eta entitateentzat zabalik izango da.
Sestra azpiko gainerako instalazioek ekitaldi-aretoari zerbitzua emateaz gain (aldagelak eta biltegia), eraikineko beste azpiegitura batzuk ere hartuko dira bertan (informatika, biltegia, gela teknikoak…)




### SARRERAKO HALL NAGUSIA: beheko solairua

Udalaren barnealdean espazioen funtzionalitatea, arrazionaltasuna nagusitzen da, zirkulazioetako optimizazioa… eta programa ordenatu bat antolatzen laguntzen dute.
Sarbide nagusia Santa Eugenia plazatik egitea proposatzen da. Sarrera-puntutik, eraikinaren erdialdean, zirkulazio nagusiak banatzen dituen atondo edo hall batera heltzen da: eskuinaldetik, erakusketa-aretora eta kafetegi-jatetxera; ezkerraldetik, harrera eta informazioko gunera, eta Gaztelekura.

### LIBURUTEGIA: 1. solairua

Etorkizuneko ekipamenduak udalerriko liburutegi handiena izango du, 710 metro koadrotik gora. Liburutegi modernoa, egungo garaiei egokitutakoa eta kontsultarako ordenagailuak izango ditu. Zerbitzu hori hemeroteka batekin aberastuko da eta baita hari erantsitako banakako eta taldekako ikasketa-aretoekin. Gazteen liburutegi eta bebeteka bat ere izango dira goiko solairuan.
Bi solairutan banatutako instalazio horietatik urtean 140.000 lagun inguru pasako direla kalkulatzen da.





### BEBETEKA: 2. solairua

Haurren eta gazteen liburutegiarekin, elkarte eta entitateetarako balio anitzeko aretoekin (bilkurak, ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, proiekzioak…), administraziorako gelekin eta egoteko gune komun batekin batera, ekipamenduko bigarren solairua bebeteka batekin osatuko da. Egokitutako eta bereizitako espazio bat da haurrak literaturarekin motiba daitezen eta literatur munduan has daitezen; hala, haurtxo eta gurasoek etorkizuneko beren irakurtzeko ohiturak garatu eta suspertu ahalko dute.



### NAGUSIEN ETXEA: 3. solairua

Nagusien Etxea instalazio berrietara pasako da eta, horrenbestez, egungo eraikinaren akatsak konpondu ahalko dira. Beste zerbitzu batzuekin gertatzen denez, aukeratzat jotzen da ekipamenduak hartuko duen erabilera nahiz instalazioen eskaintza zabala dinamismoa, parte-hartzea eta erabiltzaileen arteko lankidetza ere sustatzeko.
Etorkizuneko Nagusien Etxeko zerbitzuen artean, honako hauek izango dira: ile-apaindegia, podologia, masajea, gimnasioa, jantokia, telebista, irakurtzeko eta biltzeko gelak… Beraiek bakarrik erabiltzeko espazioez gain, bertako bazkideek Kultur Etxeak emango dituen gainerako espazio nahiz zerbitzuetarako sarbidea izango dute.



### EUSKALTEGIA ETA GUZTIENTZAKO ATSEDENLEKU EREMUA: 4. solairua

Laugarren solairuan zenbait gela izango dira, batez ere Euskaltegiarentzat eta baita elkarteentzat ere, eta guztientzako atsedenleku eremuarekin osatuko dira instalazioak, beste solairu batzuetan bezala.

### MUSIKA/DANTZA: 5. solairua

Bosgarren solairua abesbatza, dantza-talde eta abarretarako da. Balio anitzeko espazioak dira bereziki talde horiei begira prestatu direnak eta entzunaldi, grabaketa eta entsegurako gelak ditu, eta rock, pop eta abarren musika-taldeek entseguak egiteko tarteen kasuan, behar bezala intsonorizatuta izango dira. Gainerako lokalen antzera, erabilera partekatua izango da erabilera eskatzen duten talde eta elkarte guztien artean. Maila hau biltegirako espazio batekin osatzen da.



* RKEn izango diren eremu edo ekipamendu batzuen infografiak, proiektu teknikoan zehaztutako ezaugarriak aintzat hartuta egindakoak.